



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO EKAINAREN 21EAN BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2023ko Ekainaren 21ean, arratsaldeko 17:00 etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ez-ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Alai Etayo, Julen Beunza, Micaela Elizalde, Iker Isiegas, Jose Javier Auza, M^a Mar Ansorena.

17:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.-Osoko Bilkuren maiztasuna.

Idazkariak azaldu du 1985/7. Tokiko Erregimenaren oinarriak arautzen duen legearen 46. Artikulua araberako 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak hilabetero bildu behar dira batzarrean, bi hilabetero 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerriak eta hiru hilabetero 5.000 biztanle baino gutxiago dizuten udalerriak. Bildutakoak aurreko legealdiko ohitura jarraituz hilabetero osoko bilkuran deitzea erabaki dute.

2.- Batzordeen osaketa.

Alkateak jakitera eman du batzordeak irekiak izanen direla eta zenbatzen ditu orain arte aurreko legealdian izan diren batzordean eta beraien buruak izendatu dituzte beraien artean.

Gizarte Batzordea: M^a Mar Ansorena izango da batzordeko burua.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayo izango da batzorde burua

Hirigintza Batzordea. Santos Etxegia izango da batzordeko burua

Kirol Batzordea. Jose Javier Auza izango da batzordeko burua

Komunikazio Batzordea. Julen Beunza izango da batzorde buru

Kontzejuen Batzordea: Santos Etxegia izango da batzordeko burua

Kultura eta Euskara Batzordea: Iker Isiegas izango da batzordeko burua

Ogasun Batzordea- Micaela Elizalde izango da batzordeko burua

Garapen Batzordea: Santos Etxegia izango da batzorde buru.

Berdintasun Batzordea. Iker Isiegas, Micaela Elizalde eta M^a Mar Ansorena izango dira arduradunak.

Gaztediaren Batzordea. Iker Isiegas izango da batzordeko burua.

Aztertuko da legealdian zehar batzordeen funtzionamendua eta behar izan ezkerok aldaketak

3.- Udalaz kanpoko ordezkariak banaketa.

Alkateak azaldu du udalaz kanpoko erakundeetarako udaletik ordezkaria eta ordezkari bat izandatu behar direla.

. Honako hauek izango dira behean aipatzen diren erakundeetan ordezkariak, guztiak ados egonik jaso duten ordezkariarekin-

Udalaz kanpoko erakundeetarako ordezkariak:

- **Iparraldeko Euskara Mankomunitatea: Iker Isiegas ordezkaria eta Julen Beunza ordezkaria.**
- **Nafarroako Kontzeju eta Udalen Federazioa: Santos Etxegia ordezkaria eta Jose Javier Auza honen ordezkaria.**
- **Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea: M^a Mar Ansorena eta Micaela Elizalde ordezkariak izandaten dira eta honen ordezkariak Santos Etxegia eta Alaia Etayo.**
- **Basaburua-Imotz Kirol batzordea: Jose Javier Auza ordezkaria izango da eta honen ordezkaria Julen Beunza.**

- Eraikin eta Etxebizitzen Eraberritzerako Bulegoa: Santos Etxegia izandatu gelditzen da udaleko ordezkari bezala eta Alaia Etayo honen ordezkoa.
- Aralar Musika Eskola: Alaia Etayo izango da ordezkaria eta Iker Isiegas honen ordezkoa
- Eskola Kontseilua. Aurreko kasuan bezala hezkuntzarekin lotura izanik Alaia Etayo izango da ordezkaria eta Julen Beunza haren ordezkoa.
- Iruñerriko Zerbitzuen Mankomunitatea: Santos Etxegia izango da udaleko ordezkaria eta Iker Isiegas ordezkoa.
- CEDERNA-GARALUR eta Mendialdeko Mankomunitatea: Santos Etxegia izango da Basaburuko Udaleko ordezkaria eta Jose Javier Auza honen ordezkoa.
- Osasun Kontseilua: M^a Mar Ansorena izango da udaleko ordezkaria kontseiluaren aurrean eta Santos Etxegia ordezkoa.
- UEMA: Santos Etxegia izango da udaleko ordezkaria eta Julen Beunza ordezkoa.
- Basaburua Imotz Udal Elkartzea. Santos Etxegia, Julen Beunza, Alaia Etayo eta Micaela Elizalde izango dira Basaburuko udaleko ordezkariak.
- Ametza, Pulunpe: Julen Beunza izendatzen da ordezkari bezala eta honen ordezko Iker Isiegas.
- Udalbiltza:Basaburuko udaleko alkatea den Santos Etxegia izandaten da udaleko ordezkaria eta Julen Beunza honen ordezkoa.

Akordio hau

- Jakinaraztea akordio hau Iparraldeko Euskara Mankomunitatera.
- Jakinaraztea akordio hau Nafarroako kontzeju eta Udalen Federakuntzari.
- Jakinaraztea akordio hau Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatera.
- Jakinaraztea akordio hau Cederna Garalurri.
- Jakinaraztea akordio hau Basaburua Imotz Kirol Batzordeari.
- Jakinaraztea akordio hau Eraikin eta Etxebizitzen Eraberritzerako Bulegora.
- Jakinaraztea akordio hau Aralar Musika Eskolara.
- Jakinaraztea akordio hau Oihanzabal Ikastetxera.
- Jakinaraztea akordio hau Iruñerriko Zerbitzuen Mankomunitatera
- Jakinaraztea akordio hau Osasun kontseilur.

- **Jakinaraztea akordio hau UEMArA.**
- **Jakinaraztea akordio hau Basaburua Imotz Udal Elkarteari.**
- **Jakinaraztea akordio hau Ametza Kultur Elkarteari.**
- . **Jakinaraztea akordio hau Udalbiltzari.**

Bildutakoek aho batez onartzen dituzte izendapenak, bai ordezkari bai ordezko izateko.

4.- Alkate ordea izendatzea.

Alkateak adierazten du, Apirilaren 2ko 1985/7 Tokiko Erregimenaren oinarriak arautzen duen legearen 21.12 artikularen arabera, alkate ordea izendatu duenaren berri ematen du eta kargu horretarako izendatua Julen Beunza Arano izango dela erabaki duela

Julen Beunza Aranok kargu onartzen du eta bildutakoek izendapena ontzat ematen dute.

5.- Alkatearen ordainsaria eta zinegotzien dietak.

Aurreko legealdian finkatutakoko dietak hauek direla azaltzen du idazkariak:

Batzarra edo batzordeetara bertaratzeagatik 60 euroko ekarpena dieta bezala, aipatutako bileretara bertaratzeagatik.

Kilometraia 0.34

Bestelako gasuen justifikanteak gordetu eta ordainketak egingo dira. (parkinak eta bestelakoak).

Bildutakoek onartzen dituzte hortaz aurreko legealdiko dietak eta hauekin jarraitzea erabaki dute hortaz, 60 euroko dieta onartzen da batzarre, batzorde eta bestelako bileretara bertaratzeagatik eta 0.34 euro kilometroko gastua kilometraia bezala.

Bestetik alkatearen ordainsariak eta dedikazioaren inguruan, alkateak berak azaltzen du bere lanpostuan %28eko lanaldia murriztu duela eta hortaz udalari asteen 10 orduko jardunaldia eskeiniko diola, aurreko legealdian zegoan alkateak zuen dedikazio bera finkatuz.

Gizarte segurantzian alta uztailaren 1eko datarekin egiteko proposamena egiten du eta aintzat hartzen dute bildutakoek, idazkariak agindua emango dio aholkularitzari hala egin dezan.

Gai ordenetik kanpo kargua hartzeko duen zinegotzia bertaratu denez batzarrea, bildutakoek onartzen dute aho batez gai ordenean sartzea Alaia Etayo Oronozek Basaburuko zinegotzi kargua hartzearen gaia.

Basaburuko udaleko zinegotzi kargua hartu. Alaia Etayo Oronoz.

Idazkariak dagokion zinegotzi kredentziala ematen dio

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez eta arratsaldeko 17:45 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.